



I.- GAUR EGUNERA ARTEKO BILAKAERA. (-)

Euskaraz bakarrik emititzen duten irrati-emisoren kontua berria da oso, azken hamabost urteotakoa, alegia. Duela hamabost urte sortu ziren Iparraldean, lekuan lekuko hiru irrati: Gure Irratia, Irulegiko Irratia eta Xuberoko Boza. 96ko abenduan ospatu zuten hamabosgarren urteurrena. EUSKADI IRRATIA-k, berriz, urte bete beranduago, 1982ko azaroaren 23an egin zuen estreñeko emanaldi ofiziala. Ordurarte, ez zen egon emanaldi guztiak euskaraz bakarrik egiten zituen irrati-esperientziarik, orain aitatzera noana salbu.

Nafarroako Aranaz herriak izan zuen, bere txikian, lehenbiziko irrati euskalduna. Irrati-esperientzia bezala, guztiz interesgarria. 1964ean, Nafarroako Aranatzera, Erretore lanetara iritsi berria zen Esteban Irigoien apezak sortu zuen eta, oztopo asko gaindituz eta herriari zerbitzu bikaina eskainiz, 1969ra arte iraun arazi zion, egunero egunero zerbait eskainiz. Ez zen, noski, egun osokoa. Egunean ordu gutxi batzuk. Hasi, eguneroko errosarioa ematen hasi zen. Eta errosarioa bukatuta, beste kontu batzuk ere bai. Herrikoak, Euskal Herrikoak eta urrunagokoak ere bai. Igandeetan meza nagusia eta "disko dedikatuak". Disko-eskari bakoitzeko hamar pezeta ordaindu behar izaten zituen eskaria eta eskaintza egiten zituenak. Horri esker erosten zituen apezak euskal diskoak eta bestelakoak, Iparraldera egin ohi zituen

(-) Euskaraz egin izan diren irratsaioetaz hemen biltzen ditudan datuok ez dute beti nik nahi hainako fidagarritasun eta zehaztasunik. Litekeena da, zuk zeuk ere irakurle, hemen aitatzten ez den datu jakingarririk erantsi, esaten denari buruzko zuzenketarik egin edota aipatzen diren datu edo gertakariei buruzko ñabardurarik azpimarratu nahi izatea. Ongietorri, datorkeen guztiari, oraintxetik !





joanetorrietan. Garai hartarako atrebentzia haundiz, gerrate zibilaren gorabeherak nola izan ziren esp-likatzeko irratsaioak ere egin zituen apaiz gazte harek eta gauzak esan zituen bezala esan izana barkatuko ez zionik ere ez zitzaion falta izan handik aurrera.

Esteban Iriogoienek berak esan ohi duenez, hiltzorian zegoen herri bat topatu zuen berak Aranatzera iris-tsi zenean eta lan-tresna egokia iruditu zitzaion irratia, pastoradutza eta herrigintza lanetarako. Oso espe-rientzia interesgarria izan zen. Azterketa sakonago bat ere mereziko lukeena. Kontua da, herritarrek eta agintariren batzuk ere, hitzez bederen, egiten zuen lana estimu haunditan eduki arren, etsairik ere ez zitzaiola falta izan. Eta azkenean, legea bete arazte aldera, orduan Informción y Turismo-ko Ministerio-buru zen Fraga Iribarnek, itxierazi egin zuela 1969an.

Lehendik ere isteko abisuak jasoak zituen; orduko hartan, ordea, poliziak joan zitzaizkion kableak moztu, zenbait tresneria matxuratu eta halabeharrez itxi araztera.

Euskarazko irratigintzaren beste hildo batetik, irradi-emisora erabat euskaldunak izan gabe, euskarazko irratsaioak eskaini izan dituztenak ba dira, denboran Aranazkoa bera baino lehenagokoak ere bai eta, nahiz euskararen erabilerari, nahiz beste ezaugarri batzuei dagokionez, era askotakoak gainera.

Hasteko bi esperientzia berezi aipatu behar ditut. Biak dute zerikusia erbesteko euskaldunekin eta bien artean, hasiera-datari dagokionez, hamar urteko aldea egon zen; irradi-esperientzia bezala, berriz, guztiz desberdinak izan ziren.





Lehen-lehenik, diktaturak derrigortutako informazio-bide bakarrari aurre egiteko - gogoratu 1976ra arte Estaduko irrati-emisora guztiak RNE, Espainiako Irrati Nazionalaren parteak ematera behartuta zeudela -, Erresistentzia-buru zen Joseba Rezolak 1946-an Iparraldean sortu eta hirurogeiko hamarkadan Venezuelako oihanetik emititzen zuen RADIO EUZKADI/EUZKADI IRRATIA dago.(-) Emanaldiak gaztelaraz egiten zituen batez ere, baina, baita euskaraz ere, Iparraldetik emititu zuen garaian batipat. Bere baitan zeraman diktaturaren kolore bakarreko informazio zabalkundeari aurka egin nahi sendoa eta euskaldunok geure komunikabide propioak izateko eskubidearen aldarrikapena ere. Dena den, teknikoki, Venezuelako aldian, handik Euskal Herrira iritsi ahal izateko, "Onda Corta" delakoan zabaltzen zituen emanaldiak eta, alde horretatik, nekez izan zitekeen entzulego zabal batentzako irrattia. Berogeita hamar urte bete berri zirela-ta, 1996ko irailean eskaini zien omenaldia, gaurrengungo RADIO EUSKADI-k, proiektu haren eragile izan ziren Jose Joakin Azurza eta Jokin Inzari.

Gogoratu nahi dudan bigarren esperientzia ere, Ameriketakoa da. Honek ere erbesteratutako euskaldunak ditu protagonista, baina, irrati-modu bezala, guztiz desberdina izan da. Iazko abenduan bete ziren berrogei urte, Ipar Ameriketan, Wyoming Estaduko Buffalo hirian eta Johnson konterri osoan, KBSS emisoran, euskarazko irratsaio bat egiten hasi zirela. Jeanette Ezponda Maxwell zen irratiaren jabea eta berari otu zitzaion paraje hartako artzain euskaldunentzat, astean behin, euskarazko irratsaio bat egiten

(-) Dirudienez 1936an ere sortu zen lehenbiziko RADIO EUZKADI bat, gerra garai hartan, Bilboko Carlton Hoteletik emititzen omen zuena, baina, ez daukat nik hartaz datu zehatzik..





hastea: "Basque Program" hango jendearentzat. Artzainen arteko kontuak, ardi-salerosketa, euren arteko festak, Euskal Herriko kontuak eta kantuak... Domingo Martirena baigorritarra izan zen hasierako esatarietako bat. Jean Cinquambre, Jeanne Etchamendy eta Rosita Ibarra irratsaiorari berrogei urtez hatsa eman diotenak. Orain, Ipar Ameriketako emisoretako irrati-frekuentzien erabilera arautzen duen legedian ohikoa denez, emisora jabez aldatu da eta, dirudienez, irratsaioa bertan behera uztea erabaki dute. Izan ere, gaurregun Buffaloko eta inguruetan ez dago ia euskaldunik, are eta gutxiago artzain euskaldunik.(·)

Etxe-inguru hurbilera itzuliz, euskarazko irratsaioen historia txikia osatzerakoan, elkarrekin aipatu beharrekoak dira, bestalde, SER katearen Donostiako emisoran eta REM - Red de Emisoras del Movimiento (REM) izan zenaren Donostiako Irratikatean, *La Voz de Guipuzcoa*-an urte luzez egin ziren irratsaioak. Garai hartako Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak babestuta (hasiera urtea 1957-a izan liteke), urte asko egin zituzten Maria Dolores Agirrek eta bere taldekoek, Donostiako Irratikatean euskarazko emanaldiak eskainiz (Jende askok ditu oraindik ere gogoan Don Antonio eta Joxe Mielen arteko elkarrizketa haiek). Emanaldi haietatik, euskarazko irratigintzaren historian gogoratu beharreko izenak ditugu, Maria Dolores Agirre bera, Nemesio Etxaniz, Manu Oñatibia, Enrike Zurutuza jauna, *Atxukale* ondarrutarra, Jose Mari Etxebeste, Iñaki Eizmendi *Basarri*, Maria Pilar Gezala eta hauek sortu

(·) Joseba Etxarri kazetariari zor dizkiot Buffaloko KBSS irratiko euskarazko irratsaioari buruzko datuok eta esana dit, baitare, omenaldi bat antolatzen hasia dela Society of Basque Studies in Amerika, martxoaren 8rako. Joseba Etxarri kazetariak 1996an egin du, ta honekin du bostgarren urtea, AMERIKA ETA EUSKALDUNAK erreportaia sorta, Ipar Ameriketako Estatu Batuetan bizi diren euskaldunen berri jasoz, Euskadi Irratian.





eta interpretatu izan zituzten pertsonaiak. Barkatuko al zait, bestalde, denak aipatu ez baldin daditut, ze litekeena da-ta norbait ahaztea, ez baitut RNETik informazio zehatzik jaso ahal izan eta, nere aldetik, astirik ere ez, protagonistekin hitzegiteko. Eginkizun, beraz.

SER kateko Donosti Irratiari dagokionez, aipatzekoak dira Jose Artetxek zuzenduta egiten ziren "Charlando con los baserritarras" saioak, garai hartako Aurezki Kutxa Probintzialak eta Foru Aldundiak babestuta, eta, geroago, 1965tik 70ra arte, baita Jon Oñatibiak egunean bitan egiten zituen euskara irakasteko irratsaio laburrak ere. Euskara irakasteko metodoa, irratira egokituta, Jon Oñatibiak New Yorken bizi zela sortu eta landua. 1970etik aurrera ere, zenbait urtez, besteak beste Iñaki Gabilondo zuzendari zela, izan ziren euskarazko beste irratsaio batzuk ere SER katearen Donostiako emisoran. Jon Mimentza, Edorta Agirre, Isabel Illarramendi, Jose Ramon Beloki... euskarazko irratsaioak egiten zituztenetako batzuk. Iritsi ziren noizpait Bertsolari Gazteen Txapelketa bat antolatzerara ere.

Gainerakoan, SER katean bezalaxe orduko *La Voz de Guipuzcoan* eta gaurrengungo *Radio Nacional de España - RNE*-ren programa desberdinetan, orohar, atzerapausoak eman ditu euskararen presentziak, 1980tik 1982ra bitarteko aldi berezia kenduz gero. Gero ere aitatuko dugunez, 1980an, lankidetzahitzarmen bereziak izenpetu zituzten hainbat emisorek, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin lehenbizi eta Foru Aldundiekin gero, euskarazko irrati-emanaldiak gehitzearen ordainetan diru-laguntzak jasotzeko. Tartean ziren SER katearen Donostiako emisora eta garai hartan *La Voz de Guipuzcoa* - Donostiako





Irratikatea zena, astebarruan launa orduko euskarazko emanaldiak antenaratu. Diru-laguntzak desagertzeaz bat, baita irratsaio haiek ere. Geroztikoan, euskararen presentzia justu-justukoa baino ez da izan bietan, bai SER katean eta baita *Radio Nacional de España - RNE*-ko eskaintza guztietan ere.

Salbuespen bat egitekotan, halere, Radio Exterior de Españarena egin beharko genuke. Egunero egiten dute ordulaurdeneko informazio-saio bat euskaraz, Onda Corta-n, mundu zabalean bizi diren euskaldunentzako. Larunbatetan, berriz, euskal kulturari buruzko albisteez osatutako irratsaio bat, hamar minutuz.

Euskarazko irratigintzaren berrogeita hamar urteotako ibilaldian, aparteko atal berezia eta, bidenabar, baita sendoena ere, zalantzarik gabe, orain aipatzera noan irratiek osatzen dute. Lehenik eta behin, jatorriz eta esparruz, programazioari dagokionez beraz, bertakoak izan direlako eta euskararen erabilerari dagokionez, 1981 eta 82an Iparraldeko euskal irratiak eta Euskadi Irratia bera sortu arte behintzat, orohar, "in crescendo" joan zen jokabide bat erakutsi zutelako.

Batetik, Segura, Arrate eta Loiolako Irratiak dauzkagu eta, bestetik, Donostiako eta Bilboko Herri Irratiak. Ez ziren jatorrian irradi erabat euskaldunak izan, garai hartan hori ezinezkoa zelako, besteak beste, baina, berehala hasi ziren irratsaio batzuk euskaraz egiten eta, urteak joan ahala, euskararen erabilera zabalagotzen. Denak ere, zeregin eta zeresan haundikoak izatera iritsi dira euskarazko irratigintzaren historian. Gainera, irratiko esatari eta teknikari-talde euskaldun zabal eta trebe baten lantoki eta eskola izan dira.





Segura Irratia, 1956ko apirilaren 12an sortu zuen Don Cesareo Elgarrestak. 1964ean, Fraga Iribarnekin, Ministro de Información y Turismo zela, *"ya está bien de jugar a emisoras"* ospetsu hura esan, OM-tik FM-rako frekuentzia aldaketa-teknikoa arautzen zuen legea atera eta *"emisoras no adscritas a ninguna cadena"* zela-ta, mutualdi luze batera behartu zituzten. 1972an ekin zioten berriro, legezko baimenik gabe eta 1979an legez-tatu zen. Segura Irratia ez da inoiz erabat euskalduna izan, baina, darion soinu edo giro nagusia bai. Gogoan izan, besteak beste, Iñaxio Mari Atxukarrokin lehenbiziko berriketaldiak Segura Irratitik egin zituela. Dena den, agian, gaurregun da inoiz baino euskaldunagoa, ze, hainbat kazetari euskaldun gazteren lankidetzeta tarteko, berez sortzen duenez gain, Euskadi Irratiaren informazio-saio asko zabaltzen baititu. Ez dute halere, gaurko arduradunek diotenez, erabat euskaraz ihardun nahi edo premiarik inoiz ikusi edo sentitu.

Arrate Irratia, Don Pedro Gorostidik jarri zuen martxan, 1959ko abenduaren 23an. Fragaren legeak eta isteko aginduak bete-betean arrapatu zuen hau ere. Mutualdia 64tik 82ra artekoa izan zen. Hasierako urteetan ez bezala, hemendik aurrera bai, erabat euskaraz eta hortan dirau, eta irmo gainera, Bernardo Ibarraren ardurapean.

Loiolako Herri Irratia, 1961ko otsailaren 11an jarri zen martxan, aproba modura, 200 w-ko Collins transmisore batekin, eta urte bereko uztailaren 31an erabat, Erloate mendian 2 kw-ko Itame emisore berria jarrita, Juan Lekuonaren zuzendaritzapean. Fragaren legea bitarteko, honek etenaldi laburragoa izan zuen, betetzen ez zuen araua ere beste bat baitzen, irrati-kate bakoitzak (COPE-k kasu honetan) probintzia bakoitzeko, gehienez ere, OM-ko frekuentzia bakarra erabil zezakeela eta Donostiako Gotzaitegiarena





baitzegoen aurretik. 1965eko uztailaren 22an itxierazi eta 66ko San Inazio egunean ireki zuten berria, FM-n oraingoan, Itxumenditik. Ez zuten alperrik galdu derriorrezko isilaldia. Etxez etxe, baserriz baserri, 4.800 bazkide egin eta ehundaka FM-ko Askar-Philips sintonizadore berri saldu eta jarri zituzten, bere antena eta guzti.

Izan ere, hortarako eta mikrofono aurreko lanerako, Loiola Irratiak hasiera-hasieratik izan zuen Segurak eta Arratek baino lantalde trinkoagoa, baita euskaraz iharduteko ere. Hainbat esatari eta programen izenak gogoratu besterik ez daukagu. Irratsaioen artean, Andre-Gizonak, Beti Jai, Erein-Erein hazia, bertso eta kantu txapelketak... Esaterien artean, berriz, Jose Mari Iriondo, Karmelo Otaegi, Maritxu Martinez, Belen Egaña, Ixiar Sagarzazu, Imanol Elias, Mari Karmen Garaiazabal, Jaime Zubia, Andoni Lekuona, Inazio Arregi, Jose Mari Otermin eta beste...

1970an hartu zuten Jesuitek euren esku, ordurarte Donostiako Gotzaitegiaren ardurapeko zen Donostiako Herri Irratia, berehala Bengoetxea kaletik Garibai kalera aldatuz. Orduz geroztik, Donostiako eta Loiolako Herri Irratiek elkarrekin egin izan dituzte programazio-ordu asko, baina, hainbat arlotan, norberak bere nortasunari eutsiz, halere. Eguneroko meza, errosarioa eta intentzioak, bere zabalkunde-eremuko herriteako albisteak ematea, nekazal eta baserri giroko hainbat gai eta saio eta bertsolaritzaren sustapena eta zabalkundea, besteak beste, Loiolako betiko ezaugarrien artean egon dira eta iraun dute, gaurregunera arte neurri haundi batean. Euskara kultur-esparru berriagotara moldatzea eta informazio orokorraren esparru zabalagoak garai berrietara egokitu eta euskara ere informazio mundu hortara moldatzeko ahalegina izan ziren, besteak beste, Donostiako Herri Irratiaren ekarpen nagusia. Honez gero, ezin ditza-





zkegu aipatu gabe utzi, Donostiako Herri Irratiaren jokabide berri honen eragileetako batzuk: Patxi Goenaga, Iñaki Beobide, Iñaki Zubizarreta, Nikolas Aldai, Txaro Artega, Jose Ramon Beloki, Mariano Ferrer...

Urte gutxira, Franco hil eta transizio politikoaren lehen urratsetan baino ez geundela, informazioaren eta euskaltzaletasunaren arloan ematen ari ziren aldakuntza sakonen lekuko, Donostiako Herri Irratiak eta Loiolako Herri Irratiak, 1976ko martxoaren 27an, Jose Ramon Belokik zuzenduta, 24 ORDUAK EUSKARAZ, euskarazko komunikabideen eta, zehazki, euskarazko irratigintzaren aldeko aldarrikapen-ekintza hura burutu zuten. Donostiako Belodromoak gainezka egin zuen gau hartako jaialdian. Euskara, ikurriña, askatasun-nahia, burujabetza, abertzaletasunaren lapikoan pil-pil irakinean zeuden gai guztien aldarrikapen-gune izan zen eguna osoa, eta gaueko jaialdiaren giroa batipat.

Informazioaren arloan eta euskaltzaletasunean erakutsitako jokabide berri horren aurkari, bestek beste, 1976an bertan, gero Batallon Vasco-Español zelakoak bere ekintzatzat hartu zuen lehegailu baten eztrandak ankar gora bota zituen Loiola Irratiaren Itxumendiko transmisorea eta antena. Gizarte mailan eta aldakuntza politikoen arloan bizi genuen giro hartan, ekintza hark, areagotu baino ez zuen egin Loiola eta Donostiako Herri Irratiekiko abegitasuna, abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren aldetik batipat. Gogoratu besterik ez, 1978an, orduko manifestaziorik haundienatko bat egin zela Donostiako kaleetan, Herri Irratiaren alde, Gobernuaren frekuentzia-banaketaren aurka eta, oro har, azken batean, programazio-askatasuna aldarrikatzeko.





Bilboko Gotzaitegiaren babesean, Bilboko Herri Irratian ere, 1972tik aurrera hasi zen nabarmentzen euskararen aldeko giroa. Urte hartan hasi ziren egiten euskarazko lehenbziko irratsaioak. Adolfo Arejita, Juan Mari Iralagotia, Jesus Eguzkiza Eguzki, Jesus Etxezarraga, Pedro Mari Goikotxea, Karmelo Somoza eta abar... Izen ezagunak gaurrengungo euskarazko komunikabideetan, orduan abiarazitako urratsen emaitza dira. Eta haren fruitu da 1990ko irailaz geroztik martxan dagoen Biziako irrati-emisora euskaldun bakarra ere: BIZKAIA IRRATIA.

Dena den, gaurrengungo euskarazko irratiez hitzegin baino lehen, ezinbestekoa da 1980an geldialdi bat egin eta euskarazko irratigintzari urte hartan eman zitzaion bultzada erabakiorra aintzakotzat hartzea. Lehen ere aitatu dugunez, 1980. urtean, hartarako prest zeuden irrati guztien esku jarri zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, hitzarmen bidez, euskarazko programazioa gehitzearen ordainetan diru-laguntzak jasotzeko aukera. Ordurako, bestalde, bete-betean ari ziren lanean Donostian Kultura Sailak berak martxan jarritako Bikoizletza eta Aurkezletza Eskolak. Halabeharrez, euskarazko telebistak izango zituen jende-premien prestakunzara egokituagoak, baina, bidenabar, eskurago zeuden irrati-zerbitzuetarako ere balio zuten ariketak.

Bilboko, Donostiako eta Loiolako Herri Irratiak, SER katearen Donostiako FM-a eta *La Voz de Guipuzcoa* - Donostiako Irratikatearen emisora izan ziren Jaurlaritzarerkiko hitzarmena ontzat eman eta diru-laguntza haietaz baliatu zirenak, euren programazioetan euskarazko irrati-emanaldien ordutegia





zabalduz kasu batzutan, euskarazko programazio berria sortuz beste batzutan. Bikoizketa eta Aurkezletza Eskolan ikasi ahal izan zutenaz kanpo, saio hoietan eman zituzten mikrofono aurrerako lehen urratsak, gaurregun Euskadi Irratian eta Euskal Telebistan lanean ari diren esatari asko eta askok.

1982an, Euskadi Irratia eta Euskal Telebista sortzeaz bat, bertan behera utzi zituen Jaurlaritzako Kultura Sailak euskarazko irratsaioak egiteagatiko diru-laguntza haiek. Foru Aldundiek hartu zuten testigua baina denbora gutxiko. Horrela, esperientzia berezi haien garaietatik gure egunetara arte, euskarazko irratigintzan hiru zutabe nagusi eraiki dira. Irrati publiko nazional bezala, Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea, ia Euskal Herri osoa hartzen duten zabalkunde-sare indartsu banarekin. Iparraldean, lekuan-lekuko hiru euskal irrati, hirurak ere Frantziako Irratigintza-antolakuntzaren arabera "Elkarte-Irratiak" deitzen direnak. Hegoaldean, zabalkunde-eremu mugatuko eta izaera ezberdineko irrati-sorta bat: Arrate Irratia, Bizkaia Irratia, Euskal Herri Irratia eta Xorroxin Irratia Nafaroan eta euskaraz hutsez ihardutea erabaki duen udal-irratiren bat edo beste (Oñati Irratia, Arrasate Irratia, Lekunberriko Udal Irratia...) (· . Gainerako irrati guztietan, euskararen presentziak atzera egin du, nabarmen.

(·) Udal Irratiak arautzen dituen legeak dionez, programazioaren %ko 60-a euskaraz egitera behartuta daude.





2.- EGUNGO EGOERA.

Gaurko egoreaz hitzegiterakoan, lehenik eta behin, EUSKADI IRRATIAz eta EUSKADI GAZTEAz hitzegin behar da. Azken batean, programazio jeneralista batez lehenbizikoak eta gazteentzako programazio espezialdu batez bigarrenak, E.I.T.B.ko irrati publiko hauek dira gaurrengungo euskarazko irrati-gintzaren zutabe irmo eta sendo nagusiak, Euskal Autonomia Erkidegoko euskaldun denek eta Nafarroako nahiz Iparraldeko gehienek euren etxeetan aldi berean entzun ditzaketen euskarazko emisora bakarrak. Giza, teknika eta diru-baliapidez, zabalkunde-eremuz nahiz entzulegoz, euskarak irratian inoiz izan duen antolakuntza eta programazio-emaiztarik landu eta lortuena.

1982ko maiatzaren 22an onartu zuen Eusko Legebiltzarrak Euskal Irrati-Telebista sortzeko Legea. Ordurako lanean hasia zen zenbait jende, gero legeak ahalbideratuko zuena antolatze eta prestatze-lanetan. Xehetasunetan sartu gabe, bereiz ditzagun bi atal nagusi. Batetik, irrati publiko bezala, hiritar guztiengana behar bezala heda zitezten, beharrezko ziren frekuentziak izendatu eta antena-sare jasotzeaz, Herrizaingo-Saila arduratu zen hasiera hartan. Hasieran ez ezik, ia oraintsu arte. Bestetik, Zuzendaritza-taldeko beste arduradun batzurekin lankidetzan, estudioen antolakuntza eta ornidura teknikoaz eta programazioaz arduratzeko, Jose Mari Otermin izendatu zuten Euskadi Irratiko zuzendari. Egoitzarekin eta programazioarekin batera, eginkizun nagusienetako bat, lantaldea osatzea izan zuen.





1982ko uda partean, hau da, legea onartu eta hiru hilabetera egin zen lehen jende-aukeraketa. Hogeitahamarren bat lankide orotara: zuzendaritza-talde, hizlari-erredaktore, teknikari eta administrari. Hizlari-erredaktoreei zegokionez, Herri Irratiko langileak batzuk - zuzendaria bera, ni neu...-, Jaurlaritzaren Bikoizletza eta Aurkezletza eskoletan eta Jaurlatritzarekin hitzartutako irratsaioetan ihardun eta trebatuak beste batzuk eta prentsa idatzian euskaraz lan egitetik zetorrenen bat edo beste. Teknikariak ere halatsu banatzen ziren jatorriari zegokionez.

Donostian, Andia 13ko estudioak martxan zeuden irailerako eta antena-sarea ere, ez gaur bezain osatua eta indartsua, baina, neurri haundi batean bai eta, horrela, 1982ko arazoaren 23an egin zen estreñeko emanaldi ofiziala, "Zuekin Euskadi Irratia" esanez eta une hartako sintonia-musikatzat "Agur Jaunak" doinua erabiliz.

Garai hartan jendaurrean egindako azalpen guztietan esan ohi zuen Jose Mari Oterminek, Zuzendariak, E.I.T.B.ren sorkuntza-legeak irratitari finkatzen zizkion euskararen sustapen eta zabalkudnehelburuak bete ahal izateko (-) , irratigintza estandar baten aldeko apustua egin beharra zegoela, programazioari zegokionean. Hau da, diktarura garaiko uniformismo informatibo halabeharrezkotik ihesi (gogoan izan, 1976ra arte irradi guztiak RNEko parteak ematera behartuta egon zirela), transizio garai hartan biziberritzen hasia zen eta "*la noche de los transistores*" deitua izan den 81eko 23-F-ren ostean indarberritua atera zen irratigintzak bere eginak zituen ezaugarrietara moldatutako irratigintza, euskaraz ere.

(-) "Euskal Irrati-Telebista" Erakunde Publikoaren sorkuntza Legea - 1982 - maiatzak 20.





Programazio jeneralista baten ikuspegitik, informazioa, entretenimendua eta formazioa modu egoki batean elkarrosatzen asmatuko zuen irrati bat. Estandarizazioaren kontzeptuak hizkuntzarena ere hartzen zuen. Irratiak hain bere duen ahokotasun idatzian, bapatekotasunean baino areago, hizkuntz-eredu batu estandar bat finkatzen joan beharra, alegia.

Azken batean, Donostiako Herri irratian, EUSKARAZKO SEI ORDUAK izenburupean bi urtez (1980-82) antenaratu zen programazioarekin, bitarteko gutxiagorekin noski, baina aproba modura egiten saiatu ginen hura. Ahalegin hoierekin adierazkorrenetako bi baino ez aipatzearren, ahokotasun idatziaren arloan gero eta ugariago egiten genituen informazio-saioak leudeke eta bapatekotasunaren arloan, futbolarena. Garai hartan eman genituen lehenbiziko futbol-partiduak euzkaraz.

1982ko udazken hartan, Euskadi Irratiaren hasierako buruhauste eta zeregin ugarien artean, bi gabezia nabarmentzen ziren, batez ere. Batetik, profesionalen prestakuntza eta irrati-esperientzia eskasa. Euskarazko irratigintzan urtetako esperientzia zeukan jende bat ez zen Euskadi Irratiko lantaldere etorri. Etorri ginenon artean, berriz, ia denak irrati-ordu gutxiko jendea ginen, gaztea, irratigintzaren eramu zabaletan atal gutxi landuak, eskarmentu gutxikoak, mikrofono-aurreko lanetan ez ezik, baita informazioarenean, gidoigintzan, musikaletan, dramatikoetan eta abarretan ere. Bestetik, euskararen egoera bera. Euskararen egoerarena, bai informazio iturriei zegokionean (gaur gure irratian euskaraz entzuten ditugun askok, ezetz, ez zirela gai, lotsa ematen ziela eta antzeko aitzakiak jarri ohi zizkiguten; prentsaurrekoetan ere, ez pentsa gero euskaraz galdetzea hain ongi ikusia zegoenik zenbait kazeteriren aldetik; teletipoak ez ezik beste informazio-paper eta orri asko ere itzuli behar izaten zen, elkarte edo erakundeek





euskararen ohiturarik ez zeukatelako...) eta baita, lehen aipatu dudan irratirako hizkuntz-eredu egoki bat finkatzeari zegokionean ere (zenbaitetan abesti baten aurkezpen-hitzak egoki josteak berak ere lanak ematen zizkigun; teletipoetatik eta egunkarietatik hartutako notiziak euskaratzea, gehiago izan ohi zen itzulpen-ariketa bat, berri-emate egoki bat, komunikazio ariketa egokia baino, etabar...).

Nolabait esan, hutsetik hastea bezala zen. Diskategia osatzen hasi ginen bezalaxe. Irratiko gauzetan eskoladun eta eskarmentu gutxi zegoen taldean eta eskola-premia haundia nabaritzen zen. Dena den, ordutik hona, hamalau urte hauen joanetorrian, hasieran biderakusletzat hartutako helburu hari erantzuten saiatu da Euskadi Irratia, hau da, irradi publiko baten izaeratik, programazio jeneralista baten alderdiak ahalik eta ondoen osatzen, lantzen eta betetzen. Eta hizkuntza, euskara, irratigintza estandarizatu batera moldatzeari zegokionez, Lizardik euskarari opa zion "*nahi aumat noranaikoa*" hura aplikatzen saiatu da. Egia esan, hasiera hartan, esaten errazagoa zen egunerokoa egiten baino. Alde horretatik, ia dena eginkizun zegoelako, gaurregun baino aldakorragoa ere ba zen programazioa bera.

1986an erabaki garrantzitsu bat hartu zuen Zuzendaritzak. Ordurarte 17 ordukoa zena, 24ko bihurtzea. Egun osoko programazioa egiten hastea, alegia. Hori ere bat zetorren, azken finean, irradi estandar baten izaera-eskakizunekin. Gaueko entzule euskaldunari ere eskura jarri Euskadi Irratiaren aukera. Informazioaren arloan ere, gurpilaren jira osatu behar zen, Euskadi Irratiak ezin ziezaioken uko egin 24 orduen ibilbidea osatzeari. Ordurako izendatua zuen Jose Mari Otermin, zuzendariak, Odile Kruzeta Informatibo-buru. Informatibo-buru berriaren izendapena, emisio-orduak gehitzearena eta ba da gogoan izan beharreko beste aldekatu batek ere garai hartan, Euskadi Irratiaren geroko ibilbideari oso lotua





dagoelako: 86ko udazkenean sortu zen GOIZEAN BEHIN irratsaioa Jaime Otamendiren zuzendaritzapeko lantaldearekin. Jende gaztea, kazetaritza-fakultateetatik zetorrena, ikasketa guztiak euskaraz egitetik gehienak, Euskadi Irratiren beraren, RNE-3 eta Espainiako irratigintzaren zeruan sortuak ziren "izarren" entzule, azterle eta jarraitzaile... Azken finean, aide berriak Euskadi Irratiarentzat.

Orduz geroztik, eguneko 24 orduak betetzen ditugu, hau da, programatzen ditugu eta, emisioei dagokionean - akats teknikoengatik sortuak salbu -, inolako etenaldirik gabe osatzen ditugu egunak, asteak eta urteak. Urtean bi sasoi nagusi bereziten ditugu programazioa antolatzerakoan. Irailetik ekainera arteko irradi-urte nagusia, batetik, eta udako bi hilabeteak, uztailekoa eta abuztukoa, bestetik. Programazioaren eta lan-antolakuntzaren, hau da, giza nahiz teknika-baliapideen erabilpenaren aldetik, informazioaren atala da zutabe nagusiena Euskadi Irratian. Goizeko 07:00etatik 09:00ak arte, eguerdiko 13:00etatik 14:30ak arte, arratsaldeko 19:00etatik 20:00ak bitartean eta gaueko 23:00etatik gauerdia arte, lau informazio-saio nagusi eskaintzen ditugu egunero. Asteburu eta jaiegunetan heren batera jeisten da, informazio saio-nagusiei eskainitako denbora, baina, bai astegunetan eta bai jaiegunetan, hutsik egin gabe egiten dira orduz orduko informazio-saio laburrak. Horrela, eguneko programazio-orduen ehuneko 30-a informazioari eskainia dago, informatiboak dira. Esatari-erredaktoretan bakarrik, 34 langile informatiboen arloan, kirol sailekoak barne. Lautik hiru, plantilakoak, Eusko Irratiko langile finkoak, alegia.

Informazio-saioez kanpo osatzen ditugun gainerako programazio-orduetan nabarmentzen da, batez ere, zertan den Euskadi Irratia irradi jeneralista bat. Bestela esanda, irradi jeneralista izateak Euskadi Irratiaren kasuan zer esan nahi duen. Gai desberdin asko eta era askotara emanak topatuko ditugu





GOIZEAN BEHIN (07:00-12:00), SALAKO LEHIOA (14:30-16:00) nahiz larunbat-igandeetako BIDE BATE (10:00-14:00) bezalako magazinetan. Propio haurrentzako egindako saio bat ba daukagun bezala (MARTITU BERRITSU), baita aiton-amonentzako berezi-berezi bat ere (BEJONDEIZUELA). Bertsozaleek ba dituzte euren saio jakinak (BERTSO FESTA eta HITZA JOLAS BIHURTU ZEN, adibidez); NORTEKO FERROKARRILA entzuten dutenek, berriz, zientzia eta teknikaren munduko azken-azkeneko berrikuntzei buruzko kontuak entzungo dituzte. Musika-irratsaioen kasuan nabarmentzen da, are eta gehiago, irrati jeneralista baten aldeko joera: KOSTALDEKO TRENA, bere hortan, denetarik eskaintzen duen musika-magazin bat; klasikoetan klasiko, gaueroko KLASIKOAK GAUR. Biak hala biak, 3000 saiotik gora egin dituzte ia. Folk-zaleentzako, KANTAITA. Trikiti-zaleek igande goizero zuzeneko saioak. Euskal musikari arreta berezia. Euskadiko Orkestaren kontzertuekin irratsaio berezia igande gauero. Udaero, MUSIKA HAMABOSTALDIA. Udazkenero TOLOSAKO ABESBATZ LEHIAKETA. Koru-grabazioak eta emanaldiak ere maiz. Kantautoreen bidetik, KANTATAUTORE, eta abar... .

Informatiboez kanpoko programazio hau guztia, 20 esatari-erredaktoreko lantalde batez egiten da. Erdia baino gehiago lan jakinerako kontratupean. Hau da, informatiboetan ez bezala, erdia eskax Eusko Irratiko langile finko, gainerako guztiak programa jakinetan lan egiteko kontratatuak.

1990. urtean Euskadi Gaztea sortu zen, zati bat Radio Euskadiri atxikia eta beste bat Euskadi Irratiari. 1994ean, berriz, gaztelerazkoa kendu eta euskarazkoa bakarrik uztea erabaki zen, horrela, ordu-rarte bitan zatitua zegoen zabalkunde-sareaz jabetzen zen eta bere helburuak egokiago betetzen zitza-keen euskrazkoak. Hau da, Euskal Herriko gazte euskaldun guztiengana iristea. Izan ere, Euskadi





Gaztea, izenak dion bezala, gazteentzako emisora bat da, hau da, 14tik 25ra bitarteko gazteen musika-zaletasunak ardatz hartuta egiten den irrati-programazio espezialdua. SER kateak Ipar Ameriketatik inportatu zuen *TOP-40/Los 40 Principales* irrati-formula musikalaren antzera, Euskadi Gazteak ere, entzule gazteak bereganatu nahi ditu bere musika-eskaintza bereziarekin eta eskaintza horri ematen zaizkion aurkezpen-moduekin. Egia da 1994az geroztiz ordueroko informazio-atalak ere gehitu dizkiogula Euskadi Gazteari eta 1996ko irailaz geroztiko programazioan, musikarenaz bezainbat hitzaren indarraz baliatzen diren beste irratsaio batzuk ere ba dauzkala, baina, funtsean, bere nortasun-agiria musika-eskaintzak berak eta musika-eskaintza horren aurkezpen-muduek, hau da esatari edo musika-animatzaileen egikerak jazten dute.

Goizeko 7etatik gaueko 11ak arteko porogramazioa eskainten du Euskadi Gazteak eta, arduradun batek eta 11 musika-animatzailek osatzen dute lantaldea. 4 dira Eusko Irratiko plantilakoak, lan jakinerako kontratupekoak beste guztiak.

Euskadi Irratiak eta Euskadi Gazteak biak bat egiten dute Miramongo egoitzan, lan-antolakuntza, teknika-baliapide eta beste zenbait zerbitzuren moldakuntza eta erabileran. Gaur gaurkoz, baita gauerditik goizaldeko 5ak arteko programazioan ere. 1996ko apirilaz geroztik gaude Miramongo egoitza berrian - ETBren ekoizpen-zentruko teيلاتupe ber-berean-, eta teknikaren aldetik digitalizazioaren aroan burubelarri murgilduta. Soinuaren grabazio, editaia eta artxibo-prozesu guztia lanabes informatikoak erabiliz egiten dugu, hau da, disko gogorrean.





Aurrekontuei dagokionez, Eusko Irratia S.A.-ren aurrekontu osoaren baitan, bataz beste, 750 milloi inguru erabiliko ditugu aurten eta publizitatearen bidez lortuko ditugun sarreak, berriz, 80 miloikoak izango dira, gure aurrekontuen ehuneko 11-a eskax. Esan gabe doa, gainerako guztia subentzio publikoa dela.

Gaurregungo euskarazko irratigintzaren beste errealitate interesgarri bat Iparraldeko irradi euskaldunek osatzen dute. Gure Irratia Baionan, Irulegiko Irratia Garazin eta Xuberoko Boza Maulen. Hirurak dira lekuan-lekuko irradiak, frekuentzia bakarrekoak eta zabalkunde-eremu mugatukoak. Hirurak dira "Elkarte-Irratiak" (*Radio Associative*), Frantziako Estaduan A klasekoak deitzen dituztenak. Hau da, *L'Institute de l'Audiovisuel* delakoaren bitartez diru-laguntza jasotzen dutenak, aurrekontuaren hirutik bat gutxigorabehera (200.000 libera inguru), Frantziako Irrati publiko eta komertzialek euren aurrekontuen zati txiki batez osatu behar izan duten *Fonde de soutien a l'expression radiophonique* delakoari esker. Bestalde, publizitatea ere egin dezakete, baina, urteko aurrekontuaren ehuneko 20-a gainditu gabe. Zenbait erakundetatik ere jasotzen dituzte diru laguntzak, hala nola, Departamendutik, Euskal Kultur Erakundetik, Herrien Sindikatutik eta Akitaniako Kontseilutik. Horrezaz gain, bazkide edo laguntzaileak ere ba dituzte, asko izango ez bada ere, urtero diru-kopuru jakin bat ematen dutenak. Esan gabe doa, aldi-aldi kanpaina eta jaialdi bereziak ere egin izan dituztela dirua biltzeko, jakina baita publizitate-bidez lortu beharrekoak maiz hutsegiten duela.





Gainerakoan, lantalde txikiko irratia dira (4 laginle Gure Irratian, 8 Irulegiko Irratian eta antzeratsu Xuberoko Bozan), beraz, programazioa ez da trinkoa, gorebehera haundiak izan ditzazke, izan ohi ditu gainera, eta lekuan-lekuko albisteez eta kultur berriez gain entretenimendua eta musika dituzte osagarri eta ezaugarri nagusienak.

Oraindik orain bete dituzte 15 urte eta, gorabehera eta arazorik falta izan ez zaien arren, ba dirudi berrikuntza eta indarberitze-une interesgarrian dauzkagula, bai banan-banaka eta baita elkarreiko harremanetan ere. Alde horretatik, aipatzekoa da, sortu berria den GARAPEN KONTSEILUAK proposatu eta eskatu berri diela, hiruren artean irradi-proiektu bateratu bat landu eta garatzeko. Orain arte ere ba zuten elkarren arteko loturarik, programazioaren aldetik, Irulegiko Irratiaren eta Xuberoko Bozaren artean bereziki, baina, aurrerantzean lankidetzara hori aregotuko egingo da, zentzu horretan GARAPEN KONTSEILUAK argi eta garbi adierazi baititu lehentasunak:

"Soutenir l'émergence du projet radiophonique des trois radios associatives d'expression basque. Existant depuis plus d'une dizaine d'années, ces radios de proximité couvrent l'ensemble du territoire du Pays Basque et répondent à une réelle attente locale. Leur projet collectif tend à la fois à professionnaliser ces structures et à mettre en commun l'essentiel des ressources et de moyens". (·)

(·) GARAPEN KONTSEILUA-CONSELL DE DÉVELOPPEMENT

Schéma d'aménagement du Pays Basque.

Soutenir la création ou la recomposition de médias bascophones, dans la perspective de médias d'intérêt général, généralistes et professionnels. (56. Orrialdea)





GARAPEN KONTSEILUAK proiektuaren nondik-norakoak zehaztuak ditu, bai programazioari, bai lantaldeari eta bai diru-baliapideei dagokienetan eta, honenbestez, sei orduko programazio bateratu bat egiteko proiektua lantzen hasiak dira hiru irratietako ordezkariak.

Euskarazko irratigintzaren gaurengun egoeran, Euskal Autonomia Erkidegoan, euskarazko beste bi irradi-proiektu dauzkagu. Batetik, Arrate Irratia, 1982az geroztik euskara hutsean ari dena, bestetik, Bilboko Herri Irratiaren adar euskalduna, 1990an sortu zen Bizkaia Irratia.

Bernardo Ibarren ardurapean, 5 langilek osatzen dute gaurengun Arrate Irratia. Urteko 20.000.000 pezetako aurrekontuarekin, 3.000 bazkideren kuotak eta publizitatea dituzte diru-iturri bakarrak. Goizeko 8etatik gaueko 10ak arte, Arrate Irratiko programazioaren ezaugarri nagusienak, eguneroko meza, eske-lak, intentzioak (bataz beste, ordu bete pasako intentzio-zerrenda azaroan) eta errosarioaz gain, herri-etako albisteak (15 berriemaile), eskainitako diskoak, jendearen telefono-deiak, trikitixa eta herri kirolak daude bertatik sortzen dituzten gaien artean eta, orduero, berriz, Euskadi Irratiko informazio-saioak ematen dituzte.

Juan Mari Iralagoitiak zuzentzen duen Bizkaia Irratia 1990ko irailean sortu zen, Irratibide S.A.ren esku-tik, Bilboko Herri Irratiaren barruan 1973an euskaraz lan egiten hasi zen taldearen oinordeko bezala. 65.000.000 pezetako aurrekontua du eta 14 langile taldean; publizitatea beste diru-iturririk ez eta, bide hor-retatik, Bizkaiko Foru Aldundiaren babes handia izan dute. Goizeko 7etatik gaueko 11ak arteko progra-





mazioa, irrati-formula musikal baten antzekoa ordu askotan, baina, irrati konbentzionalaren osagarri askorekin, bestalde: informazio tarte laburrak, elkarrizketak, kultur-saioak etabar... Beste guztiengandik bereizten duen ezaugarri nagusi bat, hizkera: bizkaiera erabiltzen dute, bizkaiera batua, nolabait esan.

Euskarazko irratigintzaren gaurrengungo argazkia osatzeko, ezin aipatu gabe utzi, Nafarroako hiru emisora. Iruñean Euskal Herria Irratia, Elizondon Xorroxin Irratia eta, azkenik, Lekunberriko Aralar Irratia.

Euskal Herria Irratia Iruñako euskaltzale-talde baten ekimenez sortu zen 1984ean. Hango irratietan euskarari oso leku gutxi egiten zitzaiola eta Euskadi Irratiak ere garai hartan Iruñaldean behar hainako zabalkunderik ez zeukala ikusita, irrati bat sortzea erabaki zuten. Lehenik eta behin, Euskadi Irratiaren emanaldiak Iruñerrian zabaltzeko, gero, pixkanaka-pixkanaka, baita bertatik-bertarako irratsaioak egiten hasteko ere. Eta hortan dirau gaur egun ere, ordurik gehienetan Euskadi Irratia emanez eta tarteka euren irratsaio propioak eginez.

Lantalde txikia du eta Iruñako San Juan auzoan dituen estudioak ere juxtu-juxtukoak dira. Zabalkunderako antena-leku egokiago batera aldatu diren arren, oinarri-oinarriko arazorik nagusiena baimendutako frekuentziarik ezarena da. Dena den, IRUÑEKO KOMUNIKABIDEAK S.A. osatzen duten 50 bazkideak eta EUSKALERRIA IRRATIA ELKARTEA arazo horri aurre egin eta proiektua indartzeko asmotan dira, legezko frekuentzia lortzeko ahaleginetan eta Euskadi Irratiarekiko lankidetzara bideak finkatu nahian.





Xorroxin Irratiak bere bide propioa egin du bizirik daramatzen 10 urteotan. Erabat lekuan-lekuko emisora, bere ingurune naturalari baino ez dio erantzuten bere programazioan. Lantalde txikia, diru eta teknika baliapideak ere bailarako irrati-txiki bati dagozkionak eta programazio-ordu jakin batzuk baino ez, Baztan bailarako euskaldunen arteko harreman-bide izateko ilusioarekin. 96ko C.I.E.S. entzulego-azterketak, 2.000 entzule eman dizkio. Xorron Irratitik entzun liteke gaurregun ere, euskarazko emisora eta irratsaio askotan, urte luzez ihardun izan duen baztandar ospetsu baten ahots eta kontaera berezia, Mariano Izetarena, alegia.

Lekunberriko Aralar Irratia bailarako irrati txiki bat da, Udalaren babesean 1991ean sortua. Bi lankide eta herrietako berriemaileak, egunero hiruzpalau orduko programazio propioa egin eta gainerako orduetan Euskadi Irratiaren doinuak errepikatzeke. Baimen-eskaria egina, baina, gaur gaurkoz, legeztatuta gabea.

Orain arte aipatutakoaz gain, Euskal Herrian zeharreko irrati-emisora desberdinetan euskarak daukan presentzia, neurritz eta kalitatez, modu askotakoa da. Legez programazioaren ehuneko 60-a euskaraz egitera behartuta leudeken udal-irratiek ez dute arrakasta haundirik izan. Gutxi ireki dira eta ez dute denek euskararena neurri berean betetzen. Oñatiko Udal Irratia eta Arrasatekoa dira euskaraz bakarrik emititzen duten udal irratiak. Lekuan-lekuko programazio-ordu batzuk eta gainerako guztia Euskadi Irratiaren programazioa aideratuz.



Bestelakoan, Loiola, Segura eta Egin Irratia dira, onen-onenean programazioaren erdia-edo euskaraz egitera iristen diren emisorak. Gainerako guztiak, hortik behera. Donostiako Herri Irratiak adibidez, ez du ehuneko 30-a baino gehiago egiten euskaraz. Hortik gora, Juan Lekuona zuzendariak berak esaten zigunez, ez dago arriskutan sartzerik, publizitate-sarrerak galtzen hasi nahi ezpada behintzat. Gehien-gehienetan, juxtu-juxtukoa baino ez da euskararen erabilera.





3.- AHULEZIAK ETA INDARGUNEAK.

C.I.E.S. azterketa etxeak, 1996rako egin dituen entzulego-azterketen emaitzetan agertzen denez (-) , 14 urtez gorako 1.046.000 herritarrek entzuten dute irratia astean zehar Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban. Astegunetan, larunbat, igande eta jaiegunetan baino gehiago: 1.141.000. Estaduko beste lurralde batzutan baino irradi zaletasun haundiagoa dago gurean. 1994ean bigarrena zen Euskal Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa, berriz, 7.a .(-)

Batez ere, FM-z entzuten da irratia. 1.046.000tik, 445.000-k OM-z eta 853.000-k FM-z. Datuok gorabehera gutxi izan dute azken urteotan. Irrati-entzule gehien goizetan eta eguerdian biltzen da: goizetan, bataz beste, %-ko 39-a, astegunetan %-ko 44-a ; eguerdian, bataz beste, %-ko 25-a, astegunetan %ko 27-a.

Astean zehar irratia entzuten duten 1.046.000 herritar hoietatik, 503.000 dira euskaldunak (190.000 euskara *ulertzen* omen dutenak, 40.000 *hitzegiten* dutenak, 36.000 *hitzegiten eta irakurtzen* ere ba dakitenak, 237.000 *hitzegin* , *irakuri eta idazten* dutenak). Irrati-entzulegoaren ia ehuneko 50-a. Datuak hala badira, euskaldunok oso-oso irratizale gara. Ez ahaztu, datuok, 14 urtez gorako biztanleei bakarrik dagozkiela eta Euskal Autonomia Erkidegoa bakarrik hartzen dutela.

(-) C.I.E.S. KOMUNIKABIDEETAKO ENTZULEGOAREN AZTERKETA. 1996KO DATUAK - EUSKADI.

Hau da, apirilean eta urrian egindako azterketen baztaz bestekoa. Azterketaok 14 urtez gorako biztanleria bakarrik hartzen dute kontutan. Hemen aipatzen ditudan datu guztiak Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkionak dira.

(-) Comunicación Social 1994 / Tendencias - Fundesco.





Zer entzuten dute 503.000 irrati-zale euskaldun hoiek ? Ken ditzagun euskaraz ulertu besterik egiten ez duten 190.000 hoiek. Daukaguna, 313.000 irrati entzule euskaldun, astean behin badaik ere, irratiaren bat entzuten dutenak. Hoietatik 112.000 entzule batzen ditugu, Euskadi Irratia (64.000), Euskadi Gaztea (34.000), Arrate Irratia (5.000) eta Bizkaia Irratiaren (9.000) artean. Ohiko irrati-entzule euskaldunen %ko 36ak entzuten du, astean behin badaik ere, irrati euskaldunen bat (Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea, Bizkaia Irratia edo-ta Arrate Irratia).

Irrati konbentzionalen, gaur gaurkoz, euskaldun gehien biltzen duen katea SER katea da: 80.000 euskaldunek entzuten dute. Ondoren Radio Euskadi dago 70.000 entzule euskaldunekin. Gero Herri Irratiak datoz, Bizkaia Irratia eta Loiola Irratia barne, 68.000-rekin. Euskadi Irratiak 64.000 entzule dauzka.(.)

Irrati-formula musikalean, oraindik ere 40 Principales da entzule euskaldun gehien daukan emisora: 54.000. Cadena 100 dator ondoren, 37.000 entzule euskaldunekin eta hirugarren Euskadi Gaztea, 34.000rekin. (.)

(-) Datuotan ez dugu kendu euskaraz ulertzen , ulertu bakarrik egiten dutenen kopurua.

(-) EUSKADI IRRATIA eta EUSKADI GAZTEAREN kasuan, orain arte aipatutako datuei Nafarroakoak gehitu behar zaizkie.

C.I.E.S.en 96ko emaitzen arabera, 7000 entzule dauzka EUSKADI IRRATIAK Nafaroan eta 5.000 EUSKADI GAZTEAK.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, nik neuk ez daukat datu zehatzik. SIADECoren azterketa lan bat aipatuz, Gure Irratiak 30.000ko entzule-kopurua eman ohi dio bere buruari. 22.000 izango lirake Garaziko Irulegi Irratiarenak eta Xuberoko Bozak 7.000 aipatu ohi ditu.





Goizeko 10etatik 11ak artekoa da irrati kontsumo-ordurik onena. Bera dugu irratiaren *Prime Time* -a. Ordu hortan, Euskadi Irratiak, 33/35.000 entzule elkartu ohi ditu bere sintonian, GOIZEAN BEHIN irratia saioaren doinura. 20.000 entzule inguru izango ditu eguerdiko GOIZAK GAUR informazio-saioak. Gaueko orduetan, berriz, 5.000/6.000 entzulek har dezake lo Euskadi Irratia entzunez.

Esan gabe doha, telebista kenduz gero, Euskadi Irratiarena dela, euskarak inoiz izan duen *plazarik* jendetsuena. Orohar, ez du euskarak gaur duen bezanbateko zabalkunderik inoiz izan irratiz. Baina, bestalde, ez da etxeko irrati-tresna txiki horren diala gaur bezain oparo eta betea ere inoiz egon. OM eta FM, guztira, 60ren bat irrati-programa desberdin daude Euskal Autonomia Erkidegoan. 40ren bat irrati desberdin entzun litezke Nafarroan (-). Egia da ez dutela denek zabalkunde-eremu berdina, baina, halere, ugaritasun horrek eramaten gaitu, alditan optimistaren ikuspegira - "*inoiz ez didazu horrenbesteraino bete edalontzia !*" - eta alditan zerako praile ardo-zalearen esanera - "*hortik gorako kristalla zertarako zeukak ba edalontziak*". Hau da, konpetentzia-eremu bortitz eta bihurrian mugitu beste irtenbiderik eztaukagu eta orain arteko lorpenak-lorpen, oraindik ere euskaldun asko dago, haur, gazte, heldu eta zahar, irratia pizterakoan, euskarazko doinurik hautazen ez duena. Honez gero, ezingo diogu eskatu inori - ez luke zentzurik ere -, euskarazko emisorak bakarrik hauta ditzan, euskarazko irratia bakarrik entzuteko, baina, nola edo hala, lortu beharko genuke, noizean behin badaik ere, euskarazko irratiren baten aukera egin dezaten. Hortara tentatuak senti daitezten.

(-) Ez dira datu zehatz-zehatzak. Zihurrenik ere, haundi, ertain eta txiki, legezko eta legez kanpoko, iraupen luzeko eta aldikako, den-denak zenbatuz gero, kontaduria haundiagoa agertuko litzaiguke.





Etsairik haundienak, beste irratiak bezainbat, ikuspegi motzeko errutina eta sorkuntza propiorik gabeko mimetismoa izan ditzazkegu. Alde horretatik, kezkarria da, ez sektore barrutik bertatik, bertan gabiltzan profesionalongandik, ez-ta kezetarien prestakuntzaz eta medioari buruzko teorizazioaz ardurazten direnen aldetik ere, ez azterketa-lan zehatzik, ez gogoeta-gune berezitu eta dinamizatzailek sortzea eta lantzea, euskarazko irratigintzaren errealitateaz.

Luis Alberto Aranberri "Amatiño" k oraindik orain Euskaldunon Egunkarian argitaratutako artikulu batean kazetaritzaz gogoratzen zuena, hau da "*E.I.T.B sortu zenetik hona euskal kazetaritzan lanean ari diren profesionariak, Etxeparerengandik 1983ra arteko lau mende luzeetan sekula euskal kazetaritzan lan egin izan zuten guztiak baino gehiago direla*" (-) , euskarazko irratigintzaren historiaz ere, are eta gehiago esan dezakegu. Inoiz ez da irratigintzan gaur bezainbat ahots euskaldun entzun era guzti-etako programak aurkezten. Programazio euskaldun desberdinetako edukiez ere gauza bera, inoiz ez da gaur haina gai eta modu ezagutu irratian. Arriskua, hau guztia estadistika-datu hotz eta hutsetan gelditzean dago.

Irrati-moetak, irrati-orduak, irratilari profesionalak, frekuentziak, antenak, teknologiak, aurrekontuak..., dena dago inoiz ezagutu ez ditugun kopurutara jasota euskararen zerbitzutan, hori ageri-agerikoa da, baina, haundien eta txikien arteko aldea, bitartea, zabalegia da. Irrati publikoen eta pribatuen arteko aldea oso handia da, haundiegia. Euskarazko beste irrati guztien urtebeteko aurrekontuak batuta, ez

(-) Euskaldunon Egunkaria - 1997ko urtarrilaren 2-a. (2. Orrialdea).





dute Euskadi Irratiaren eta Euskadi Gaztearen urteko aurrekontuaren laurdenik ere egiten. Ondorioz, bi sektoreen, publikoaren eta pribatuaren arteko aldea, arlo guztietara hedatzen da: estudioen ornidura teknologikoan, langilegoaren lan-baldintzetan, programazioaren kalitatean. Egia da lankidetzaz-modu batzuk ezarrita dauzkagula Euskadi Irratitik beste irrati batzuekiko (Arrate, Segura, Oñati, Euskal Herria Irratia, Aralar Irratia eta abarrek gure emanaldietako batzuk zabaltzen dituzte, informatiboak batipat, eta Baionako Gure Irratiarekiko informazio-lanetarako hitzarmen bat ere ba daukagu), baina, ahulezia-zantzuak ere hortxe nabari dira.

Ahulezia puntuetako bat publizitatearena ere da. Konturik optimistarenak eginda, 200-en miloi mugituko dira irrati egiten den euskarazko publizitatean. Behin berritan, eskerrak subentzio publikoari. Euskadi Irratiak eta Euskadi Gazteak, udal-irratiek eta, seguruenik, baita Iparraldeko euskal irratiek ere, nahiz eta denak finantziabide mistokoak izan, iraun ahalko dute, entzulegoak erabat abandonatu edo-ta norabide politikoak erabat kontrako bihurtzen ez zaizkien bitartean. Baina, publizitatearena diru-iturri nagusi eta ia bakar duen sektore batean, nekez eutsi ahal izango zaio ekimen pribatu osasuntsu bati, ozta-oztako publizitate diru-kontu hoiekin.

Bestalde, eta publizitateaz esandakoaren harian, lehen ere adierazi dugun bezala, irrati publiko euskaldunak agertu eta indartu izanarekin, diru-laguntza publikoak desagertu zitzaizkielako, hainbat irrati-tan momentu jakin batean euskarak lortua zuen presentzia-maila jeisten joan zen. Eta ez dirudi horrek, oraingoz, itzulirik ba duenik. Beraz, ez dago ez euskarazko irratigintzaren sektore pribatua batere osasuntsu.





Beste ikuspundu bat ere aitatzearren, errealitate ukaezina da, gaurko irrati eta telebistagintzari esker, euskararen ahozko transmisioak inoiz izan dituen tresna edo baliabiderik indartsuenak dauzkala. Gai hontaz, Bernard Quemadak *"Une langue: le français aujourd'hui dans le monde"* liburuan idatzi eta Mari Karmen Garmendia Kultura Sailburuak eskuratu zidan Québecéko Gobernuaren dokumentu batetik jasotako esaldiok datozkit aukera-aukerako:

"Depuis 25 ans, c'est l'oralisation du français qui marque, par le poids de son omniprésence dans les échanges, les normes usuelles de la langue".

"Cette transformation répond assurément aux impératifs de la vie contemporaine et à la préoccupation constante de communiquer. La transmission orale s'est imposée pour traiter ``à chaud`` et de façon immédiate les informations d'actualité... (...) Les nouveaux messages ont des caractères communs, ceux d'un français plus lâche, moins élaboré, plus pauvre au niveau de chaque locuteur, mais qui, globalement, autorise la multiplicité des variantes antérieurement écartées au titre de vulgarismes". (·)

Indar-gune eta ahuleziak aipatzerakoan, kezkatu behar gaituen gai bat, zalantzarik gabe. Nola ari gara erabiltzen eskura dauzkagun bitartekoak, hizkuntzaren transmisio-bide diren aldetik, hizkuntz-kalitateari dagokionean? Eta galdera baino ez dut egiten, komunikabideetako euskararen erabilerari dagozkion

(·) La problematique de l'improvisation. (39. orrialdea)

La qualité de la langue: survol des préoccupations récentes - Édith Bédard.
Gouvernement du Québec - Conseil de la langue française - 1979





betiko gaiak hor daudelako: batua, euskalkiak, bapatekotasuna, ahozkotasun idatzia, hizkera kolokiala, hizkera informatiboa... Bizkaieran aldeko apustua egin duenak bezalaxe, batuaren bideetatik omen gabiltzanok, Iparraldekoak bezalaxe Hegoaldekoak, denok ere borondaterik onenarekin, entzuleak irabazten saiatzen gara, ez uxatzen, eta ez da gutxi. Dena den, hizkuntzaren erabilpen eta trebakuntzan, biderakusle zehatzagoak beharko genituzkeela iruditzen zaigu maiz.





4.- ETORKIZUNERAKO URRATSAK.

"Panderiko pentsuak, ez merkenak bai onenak", euskarazko irratigintzaren historian asmatu den esloganik onenetako bat entzuten zen garaitik egunotara, irratigintza bera ez ezik, entzulegoaren portaerak ere aldatu egin dira. Entzungarritasunaren kalitatea nabermen hobetu zuen FM-ko emisioak agertzetik eta etxean irrati-entzungailu bakarra edukitzetik, lau, bost edo sei edukitzera pasa gara. Etxean, kotxean, jaikitzerakoan, lotarakoan, mendira goazenean, lanean edo irakurtzen ari gerala, egunean zehar askotan daukagu hor inguru-minguru irratiaren soinua, baina, askotan ez diogu kasu haundirik egiten. Izan ere, norberak entzun nahi duenaren aukera ere errazago egiten baita orain, sintonizadore programagarriek esker, beraz, batetik bestera ere ariñago mugitzen gara eta entzule selektiboagoak bihurtu gara. Telefonoa, telebista, bideoa, Hi-Fi-ak, ordenagailuak, bideo-jokuak, etabar..., komunikaziorako eta entretenimendurako gauza asko daukagu etxean, garai batean ez bezala. Astirik ere, ez diogu lehen haina eskaintzen irratia adi-adi entzuteari.

Hortatik bi ondorio atera ditzakegu. Entzulea erakartzeko interes-gune bizi-biziak sortzera behartuta gaude, edukia, forma eta momentua ongi hautatuz. Aldi bakoitzean, ahalegin bakitzeke zer entzule-moetarengana iritsi nahi dugun ere oso argi edukitzeko premia ere areagotu egin zaigu. Programazioaren fragmentazioa, espezialiazazioa eta irrati-moeta desberdinen arteko osagarritasuna ongi azertu beharra, alegia.





Digitalizazioaren garaiak bete-betean hartu du irratigintzan soinuaren ekoizpen prozesu guztia, esatari-erredaktore, teknikari ahiz programadoreen lana erraztuz. Urrengo pausoa emisioen digitalizazioa izango da, eta ba dator. Irratiak hain berea izan duen "interaktibitatea", areagotu baino ez da egingo eta mezuak emititzeko nahiz entzuteko bitartekoak dibersifikatu egingo dira (Internet-en bidez etxeko ordenadorean, kable bidezko zerbitzuetan...). Emiso digitalean, soinua ez ezik datuak eta irudiak ere helarazi ahal izango dizkiogu entzuleari.

Irratia programatzeko modu berriak esperimentatzen hasteko ordua dugu. "Radio a la carta" delakoak edukiak behar ditu. Irrati-emisio digitalaren interaktibitate-ahalmen berriak edukiz bete behar dira. Euskaltea etxean, osa ezazu gure agenda, aukera ezazu zeure musika, aukera itzazu albisteak, egunero ipuin bat...irradiak eman ahal izango dituen zerbitzuak dira.

Etorkizuneko irratigintzaren aldakuntza-prozesuan hildo nagusi izan litezkeen hoienguruko gogoeta-bideak irekiz, ba dira nere ustez, orantxe bertan ere eginkizun dauzkagun gairen batzuk, proposamen-modura izenburutan bakarrik aurkezten ditudanak:

1.- Euskaraz bakarrik emititzen ari garen emisora guztien arteko lan-bilkurak, elkarren berri izan, arazoak aztertu eta datozkigun erronkei aurre egiteko, lankidetzabideak urratzen hasiz.

Besteak beste, geure iragan hurbilaren ezagutzan sakondu geure izan diren irradi gizon-emakumeen lana hobeto ezagutu eta euskaldungoari eskaintzen diogun zerbitzuan elkarren osagarritasuna bilatzeko.





2.- Jendea irratia euskaraz entzutera gonbidatuz, irradi euskaldun guztien arteko kanpaina berezia egin. Euskarazko irratigintzak beti sortu izan ditu asmakizunak oztopo eta ezintasunak gainditzen joateko. Bazkide-sistemak, zerbitzu jakinen ordainketa (eskelak, intentzioak, diskoak...), jaialdiak, argitaralpenak, etabar... Euskarazko irratigintza erakargarri egingo duten mezuak eta zerbitzuak zabaldu.

3.- Berdin, euskarazko publizitatea indartzeko ere. Publizitatearen munduarekiko hartzaile huts baino areago, eragile ere izan beharko genuke. Hizkuntzaren gizarte-erabilpen normaldu batean, publizitatearen prezentzia ere normaltasun-faktorea baita.

4.- Irrati euskaldunen eta euskara ikasten ari direnen arteko harremanak erraztuko lituzketen ekintzen azterketa. Hizkuntza ikasteko ahalegina egiten ari diren haur eta gazteei, nahiz alfabetatze-ikastaldiak egiten ari direnei, euskaltegiaren osagarriak etxean jartzeko ahalegina.

5.- Euskarazko irratigintzaren entzulego-azterketa kuantitatibo eta kualitatibo bereziak, euskaldun-goarengan dugun benetako inzidentzia, eragin eta onarpen-maila zehazki ezagutzeko.

6.- Irratiko esatari-erredaktore eta teknikari euskaldunen prestakuntza-plangintzak bideratu, ikastaldi bereziak prestatu eta, hizkuntzaren arloan batipat, urrats bateratuak eman ahal izateko, itxu-aurrekotza nork eta nola egingo duen aztertze lan-bilerak egin.

7.- Soinu-produkzioaren eta emisioen digitalizazioak sor ditzakeen etorkizuneko eskazizunei aurre egiteko nondik norakoak aztertu eta ahaleginak bateratu.

